



IRAUNKORTASUN MEMORIA 2016

2017ko ekaina

Aurkibidea

Mundu iraunkor baten alde

Misioa, bisioa eta konpromisoak

- Misioa
- Bisioa
- Konpromisoak

Gure konpromisoa bezeroekin, bidaiariekin eta herritarrekin

- Segurtasuna bidaiarientzat
- Autokarren fidagarritasuna
- Taldean garatzen dugun teknologia propioa eskaintzen dugu
- Errentagarritasuna gure bezeroentzat
- Irizar zerbitzua
- Irisingarritasuna bidaiarientzat

Gure konpromisoa pertsonekin

- Konpromisoa enpleguarekin
- Komunikazioa eta parte hartzea
- Aniztasuna eta berdintasuna
- Prestakuntza
- Lan kontziliazioa
- Segurtasuna eta osasuna

Gure konpromisoa kanpoko laguntzaileekin

Konpromisoa ingurumenarekin

- Gure jarduera
- Irizarren autokar hibridoa
- Irizar Taldearen hiri autobus %100 elektrikoa

Gure konpromisoa gizartearekin

- Gure sektorearekin zerikusia duten jarduerak
- Kultur jarduerak
- Heziketa jarduerak
- Kirol jarduerak
- Izaera sozialeko jarduerak



Mundu iraunkor baten alde

Hirugarren urtez jarraian atseginez aurkezten dizuegu 2016ko gure Iraunkortasun memoria, berriro ere Nazio Batuen Munduko Itunean Giza Eskubideen, Lan Eskubideen, Ingurumenaren eta Ustelkeriaren aurkako borrokaren gainean aldarrikatutako hamar printzipioekin hartutako konpromisoa berretsita.

Memoria hau, zeina gure interes talde guztien esku baitago, Irizarrek lehiakortasun iraunkorarekin duen konpromisoa (ekonomikoa, soziala eta ingurumenekoa) jasotzen du eta bezeroekin, bidaiariekin, kanpoko kolaboratzaileekin, gizar-tearekin eta ingurumenarekin egiten duten ekimen nagusiak laburbiltzen ditu.

Gure Misioa, Bisioa eta Balioak oinarri hartuta, Iraunkortasuna maiuskulaz idazten da Irizarren. Etorkizunean pentsatzea esan nahi du, geure burua gestionatzeko dugun moduan zein eskaintzen ditugun produktu eta zerbitzuetan, mundua iraunkorrago baten alde gure hondar alea jarrita.

Azpimarratzekoa da 2016an gure estrategia sakon berrikusi dugula, eta Irizar S.Coop.eko kolektiboaren partaidetza maila handia izan dela.

2016an, halaber, elektromugikortasuna lantzen eta autobus %100 elektrikoak fabrikatzen diharduen gure negozio arloa bultzatzen jarraitu dugu, eta autobus hibridoak ekoizten hasi gara.

Azken bi urteotan ia 200 lagun gehiago gara Irizar S.Coop.en, heren bat goi mailako lizentziatuak, gure ahalmen teknologikoa eta I+G-koa areagotzeko; horrek esan nahi du lantaldea %20 hazi dela modu egonkorrean. Dagoeneko ia 800 lagun gara enpresa matrizean.

Kualifikazio altuko pertsonak hartzen jarraitzen dugu gure I+G programak gauzatzeko, bai autokar integraletan bai elektromugikortasun negozio lerro berrian.

Prest gaude hirietako garraio sistemen eraldaketan gidari lanak egiteko, jakin badakigu hirietan hiritarrek bizi kalitate egokia edukitzea zaila dutela, egun hirietan dagoen kutsadura akustikoa eta aire kutsadura oso handiak baitira.

Adeitasunez,



José Manuel Orcasitas Landa
Irizar Taldeko CEO

“ Gure Misioaren, Bisioaren eta konpromisoen oinarrietatik abiatuta **IRAUNKORTASUNA** letra larriz idazten da Irizarren. ”



Misioa, bisioa eta konpromisoak

Hau da 2016aren amaieran Pentsamendu Estrategikoak berrikusi genituenean aterata zena:

Misioa

Gure enpresa proiektua eta marka etengabe indartzea hazteko eta gure inguruetan aberastasuna eta lana sortzeko.

Giltzarria da gure bezeroek gogobetetze maila altua lortzea, haiekin harreman oso gertukoa sortuta eta proiektu sendo baten bermea eskainiz hartan konfiantza izateko.

Faktore estrategikoa da gure bezeroek behar dituzten produktuak eta zerbitzuak eskaintzeko orduan haien beharretara egokitzeko malgutasuna; horrek bereizten gaitu lehiakideengandik eta horrela lortzen dugu haien leialtasuna lortzea.

Horrez gain, Irizar Taldearen parte garen pertsonak, gure kanpoko laguntzaileak eta gizartea ahalik eta gehien asetzeko lan egiten dugu.

Irizar S. Coop.en lan esparrua kooperatiboa da eta izango da, Taldeko beste enprekin komunikazioan eta haien kudeaketan eta emaitzetan parte hartuz.



Bisioa

Segurtasun, fidagarritasun, erosotasun eta errentagarritasunaren alde-tik bereziak diren autokarrak eta autobusak eskaintzea gure bezeroei, bidaiariei eta gizarteari, eta erreferenteak izatea zerbitzuan, kalitatean, diseinuan, berrikuntzan, teknologian eta jasagarritasunean.

Taldearen gainerako jardueretan ere erreferente izatea bezeroei ematen zaien balioan.



Konpromisoak

Egunero saiatzen gara liderrak izaten eta lidergo hori gure bezeroentzat onura bihurtzen. Taldean lan egiten dugu eta bezeroarekin eta Taldearen estrategiarekin konprometitutako pertsonak gara. Efizientzia, komunikazioa, parte-hartzea, autogestioa eta kudeaketan bikaintasuna sustatzen ditugu. Ingurune egokiak sortzen ditugu gure proiektuetan partaide diren pertsona guztiek euren talentu, gaitasun eta ilusioen arabera ahalik eta gehien eman dezaten. Giltzarria da etorkizunean arrakasta izan dezagun.



Gure konpromisoa BEZEROEKIN, BIDAIRIEKIN eta HERRITARREKIN

“Bezeroak fidelizatzea” da Irizarren estrategia nagusia, horretarako historian zehar Taldeko filosofiaren funtsa izan diren lau zutabeetan oinarrituta: segurtasuna, fidagarritasuna, errentagarritasuna, zerbitzua, teknologia eta iraunkortasuna.

Irizar i8 autokarrak eta i2e autobus % 100 elektrikoak, Espainiako 2016ko Urteko Autokarraren Saria eta Ibilgailu Industrial Ekologikoaren Saria eskuratu dute. Sariak, Transporte 3 eta Viajeros errepideko garraioaren sektorearen aldizkariak sortu duenak, autokar eta autobusen modelo berrien bikaintasuna saritzen du, eta estatu mailan autokar eta autobusen kategorian dagoen saririk garrantzitsuentzat jotzen da. Ingurumenari buruzko kapituluari, gure autobus elektrikoaren gaineko informazio gehiago ikusi daiteke.

2016an, Irizarrek i6s berria merkaturatu zuen. Goi teknologiako autokarra da, markaren ADNa osatzen duen espiritu berritzailearekin garatuta dago, eta Irizar pb-a ordezttera dator. 2016an, halaber, errekuntzako motorra duten Irizar markako gure autokar integralen eskaintza osatu genuen motor hibridoekin, gure bezeroen eskaririk ekologikoenari erantzunda.

Hala, Irizar autokar eta autobusen gama zabala eta soluzio teknologiko ugari eskaintzen ditu, tartean autokar integralak, autobus %100 elektrikoak eta teknologia hibridoko II klaseko ibilgailuak hiriko eta hiri arteko zerbitzuetarako. Aukera horrek bidaiarien garraio publikoaren arlo guztiei erantzuten die, bai zerbitzu pribatuetan bai publikoan, hirian, hiri artekoan eta ibilbide luzekoan, eta mugikortasun iraunkorraren sektorean lider bihurtzen gaitu.

Irizarrek bezeroekin eta gizartearekin erakutsitako konpromiso sendoaren emaitza da hori dena. Izan ere, bezeroei eta gizarteari balio erantsi handia eskaintzen die produktu eta zerbitzuei dagokionez, baina diseinua, pertsonalizazioa, segurtasuna, fidagarritasuna eta iraunkortasuna bezalako gai garrantzitsuak ahaztu gabe.



SEGURTASUNA bidaiarientzat

Errepideko arazoak saihestea ezinbestekoa da Irizar ibilgailuentzat. Irizar markaren ibilgailu guztiek R.66.02 segurtasun araudia betetzen dute, eta sistemarik modernoek dituzte segurtasun aktiboari dagokionez, egonkortasuna bermatzeko eta aurrekusi gabeko egoeretan arriskuak minimizatzeko.

ESC egonkortasunaren kontrola, AEBS larrialdiko frenatze sistema aurreratua, ACC abiadura kontrol moldagarria eta LDW errei aldaketaz ohartzeko sistema dira segurtasun aktiboko sistema modernoetako batzuk.

Muturreko egoeretan, errepidean gainerakoen jokabidea aurrekusi ezin denean, lasaigarria da jakitea Irizar autokarren egitura iraultetarekiko eta parez pareko talkarekiko erresistentzia aintzat hartuta diseinatu dela, pisuen banaketa optimizatuta. Eta lasaigarria da jakitea, baita ere, gidatzeko lekua alderdi hori nabarmentzen duen funtsezko atala dela. Horren erakusgarri, hona hemen ezaugarri batzuk: handitasuna, ergonomia, aginteen eskuragarritasuna, elektronika kontsola zentral bakar batean masiboki txertaturik egotea (MMI) eta atzeko ispiluen ikusgaitasun bikaina.



Autokarren FIDAGARRITASUNA

Gure autokarrak kalitate parametrorik zorrotzenekin sortu dira, kalitate handi-
neko akaberekin, eta, bereziki, sendoak eta fidagarriak.

Ahalik eta fidagarritasunik handiena bermatzeko, Irizar familiako autokar
guztiek proba gogorak eta iraunkortasun saioak gaintitzen dituzte kanpoko
prestigidun institutuetan, hala nola IDIADAn eta Applus +-en, eta emaitza
bikainak lortzen dituzte.

Taldean garatzen dugun TEKNOLOGIA PROPIOA

Irizarrek sortutako teknologia zirkulazioak, lurzoruak eta errepideen izaerak sortutako erronkak gaintitzera bideratuta
daude. Baina, era berean, ongizatea eta segurtasuna emateko ere pentsatuta daude, bidaiatzearen plazera eta goza-
menarekin lotuta.

Lehenengoan artean, honako hauek nabarmentzen dira: barruko nahiz kanpoko LED argiztapena, arkitektura multi-
plexatua eta CAN komunikazioa, autokarraren elektronika osoa artikulatzen duena, OBD konektorearen bidez diagnosi
zerbitzuak eta datuak hartzea ahalbidetzen duena eta sistemei nolabaiteko adimena eransten diena.

Nabarmentzekoak dira, hala berean, gidatzen laguntzeko sistemak (AEB-LDW sistemak), ukipen pantaila, kontrola eta
HMI kotsola dituztenak. Bertatik kudeatzen dira entretenimendu eta konfort sistemak.

Bigarrenen artean, bidaiarien gogobetetzea zurkaizten dutenak dira aipagarri: etengailu kapazitibo eskusiboak sabaiko
argi difusorean. Nobedade moduan airea xurgatzeko sistemak gehitu dira, bai autokarraren sabaian bai azpian, zeinek
klimatizazioaren eta lurrunaren kontrako moduaren errendimendua handitzen duten.





ERRENTAGARRITASUNA gure bezeroentzat

Operadoreak aurre egin beharreko kosturik handiena erregaiarena dela jakinik, Irizarrek ahaleginak eta bi egin ditu kontsumoak murrizteko. DAF Euro VI motor belaunaldi berriak barne marruskadura gutxiago du, erregaia injektatzeko sistema aldatu egin zaio eta beste soluzio batzuk ere aplikatu zaizkio; horri guztiari esker, kontsumoa nabarmen murriztu da.

Hainbat ezaugarri Irizar autokarrak segmentuko lider bihurtzen dituzte kontsumoari dagokionez: abiadura-kaxa automatizatuen softwarea; aurrealde estuagoak edukitzeak eta sartzen zaion airea gutxiago izateak ematen dioten marruskadura gutxiagoko aerodinamika; ordezeko gurpila karenatua; eta erresistentzia handiko altzairuak eta aleaziozko hagunak erabiltzearen ondorioz pisu gutxiago edukitzea.

Konpontzeko eta mantentzeko kostuei dagokionez, zerbitzu tarteak luzatu egin dira. 100.000 km-raino ibil daiteke olio aldatu gabe eta kate zinematikoko eta karrozeriako ordezeko piezen prezioak doitu egin dira.

Autokarrei teknologiarik aurreratuena jarri ahal diegu kostuen eta eraginkortasunaren jarraipen zorrotza egiteko, enpresek errazago eduki dezaten beren flota bakoitzaren errendimendua eta errentagarritasuna optimizatzea.

Horri gehitzen badiogu zerbitzu sareak hedatzeko prozesuan jarraitzen duela Irizarrek homologatutako tailerrak autobusak dabiltzan lekuetatik ahalik eta gertuen egoteko, Irizar baten hondar balioa handia izango dela eta, beraz, inbertsioaren itzulera erakargarria izango dela bezeroentzat, edota lehentasunen artean CO2 isuriak gutxitzea dagoela, zalantzarik gabe baieztatu daiteke Irizar baten alde egitea aukera onena dela.



Irizar ZERBITZUA

Bezeroari modu hurbilean eta pertsonalizatuan arreta ematea da Irizarren balio erreferentziakoa eta bereizgarria. Bezeroak bere premien arabera behar duen autokarra zehaztu eta konfiguratzeko duen unean hasten da arreta hori. Irizar zerbitzuak irtenbide pertsonalizatuak eskaintzen dizkizu, onena eskaintzeko diseinatuak eta sortuak: finantziarioa, konponketa eta mantentze kontratuak eta erabilitako zure ibilgailua jasotzea eskaintza zabalean txertatuta daude.

Erreferentziako balioa da oraindik ere konponketa zerbitzu osoa, prest jartzea eta erabateko bermea duen mantentze lana edukitzea, egunean 24 orduz, urtean 365 egunetan.



IRISGARRITASUNA bidaiarientzat

Bidaiarientzat irisgarri izatea eta bidaiarientzako espazio handiak edukitzea oso garrantzitsua da; hori dela eta, azken urteotan berrikuntzak egiten ari dira alor horietan, bidaiariei ahalik eta konfortik eta irisgarritasunik handiena eskaintzeko helburuz.

Konponbide ugari ditugu MUPentzat (Mugikortasun Urriko Pertsonak) eta gurpildun aulkiak ainguratzeko sistemak, pertsona horiek gainerako bidaiariak igotzen diren toki beretik igo daitezuten autokarrera, edozein diskriminazio mota saihestuta.

Beste aukera askoren artean, azpimarratzekoa da, halaber, autokarraren barruan dagoen itsuendako irakurketa sistema aurreratu.



Gure konpromisoa PERTSONEKIN


Pertsonen estrategian aipatzen da: **“ Proiektuarekin eta haren misioarekin eta bisioarekin konprometitutako pertsonak jarritako erronkak lortzeko.**

Pertsonen **gogobetetzea** eta **motibazioa** garrantzitsuak dira. Lantaldeen **komunikazioa, lidergoa eta autogestioa** sustatzen dira ahalik eta gehien, eta norberaren aukeretatik kanpo geratzen dena antolamendu egoki batekin osatzen da. **”**

Konpromisoa ENPLEGUAREKIN

Gure misioaren helburua da enplegua sortzea Irizar Group presente dagoen herrialdeetan. Hau da guretzat gizarteari egin ahal diogun ekarpenik hoberena. Horrekin koherente izanik, eta grafikoak adierazten duenez, enplegu sorrera goraka joan da etengabe eta lanpostuei eutsi zaie, baita krisialdiaren unetik txarrenetan ere.

Enplegu sorrera (Irizar Taldea)



Azken hiru urteetan 160 pertsona sartu dira, beraz, 2016an 160 pertsona gehiago daude. Lanean hasi diren pertsona horietatik 105 goi mailako heziketa zikloetatik datoz, eta gainerakoak, 55, goi mailako lizentziadunak dira, gure gaitasun teknologikoa handitzeko eta gure I+G proiektuak gauzatzeko, batez ere.

Batez besteko adina

Urte horietan sartu diren pertsona berriei eta egon diren erretiroei esker, gure langileen batez besteko adina jaitsi egin da.



Enplegu sorrera (Irizar S. Coop.)

Urtea	Pertsonak
2013	702
2014	765
2015	786
2016	778

Urtea	Adina
2013	40,10
2014	40,44
2015	39
2016	39

Pertsonen errotazioa

Errotazio ratioak oso txikiak dira Irizarren eta presente gaudeneko herrialdeetako batez bestekoaren azpitik daude. Zalantzarik gabe, hori da gure pertsonen gogobetetzearen eta motibazioaren froga bat.

Kalitateari lehenetsua ematen diogu kontratazioan, eta zentzu horretan esan dezakegu sartu diren langile berri gehienak, %95 baino gehiago, epemugarik gabe sartu direla. Estatutuen arabera, norbait epemugarik gabeko bazkide onartzea arautzen baitute, 3 urteko aldian ezarritako betekizunak betez gero iraupen jakineko bazkide izatera igarotzen da. Egoera horretan gehienez ere 4 urte igaroko ditu, eta ondoren epemugarik gabeko bazkide bihurtuko da, aldian-aldian egingo zaizkion ebaluazioak gainditu ondoren.

Kontratuen kalitatea

Joera hori 2013tik 2016ra bitartean egon den plantilla igoeraren eta erretiroen ondorioa da.

Irizarreko pertsonak, gainera, abantaila eta promozio garrantzitsuak dituzten hainbat gaitan, hala nola, banku, komunikazio, aseguru, erregai kontuetan. Horiek denak Kontseilu Errektorearen bitartez bultzatu eta negoziatzen dira.

Irizarrek programa bat dauka, Irizar Trainee Program (ITP), zeinarekin helburua da profesionalak sartzea arlo teknikoan nahiz produkzioan edo marketinean. Formazio eta ebaluazio jarraituaren bidez gure estrategia ulertu eta profesional gisa gurekin batera garatzea bilatzen du, ondoren enpresan behin betiko geratzeko. Industri ingeniari mekaniko, elektriko eta antolaketakoei zuzenduta dago, esperientziarik gabekoak edo urtebete baino esperientzia gutxiagokoak eta kualifikazio maila handiarekin.

Praktikak eta bekak egiteko aukera ere eskaintzen dugu unibertsitateko espezialitate bat baino gehiagotarako, eta karrera amaierako proiektua egiteko aukera ere bai.

Ildo horretan, inguruko ingeniariak eskolekin elkarlanean ari gara Student Formularekin. Bikaintasuna bultzatzeko lehiaketa bat da, eta urtero egiten da mundu osoan. Urte osoan plaza bakarreko lasterketa autoak diseinatzen eta eraikitzen diharduten lantalde ugari hartzen dute parte lehiaketa horretan. Ibilgailu elektrikoak egitea bultzatzen dugu, ikasleek beren ezagutza guztiak praktikan jarri ahal ditzaten, benetako egoera simulatuz, non lantaldea enpresa bateko kide balitz modua lan egin beharko duen.

Lanbide heziketako eskolekin elkarlanean, gurekin praktika profesionalak egiteko aukera ematen diegu goi mailako formazio zikloko 12 bat ikasleri.

Epemugarik gabeko kontratuak guztirako plantillarekiko

Urtea	Bazkideak
2013	95%
2014	93%
2015	83%
2016	82%

Bazkidegai diren kontratadunak

Urtea	
2013	5%
2014	7%
2015	17%
2016	18%

KOMUNIKAZIOA eta PARTE HARTZEA



Gure ustez barruko komunikazioa da kultura korporatiboa transmititzeko eta pertsona guztien integrazioa, gogobetetzea, motibazioa eta inplikazioa lortzeko bidea, gero eta pertsona konprometitua goak edukitzeko eta haiei eragiten dieten ekintza eta erabakietan partaide bihurtzeko.

2016an barruko komunikazio bideak aztertu dira eta azterketaren ondoriozko hobekuntzak jarri dira abian.

2016an, barne komunikaziorako ohiko foroek gain, hausnarketa estrategikorako prozesua gehitu daiteke; Irizarreko lantalde guztiak ordezkatzeko zituzten lagunek egin zuten, bai zuzeneko langileei dagokienez bai zeharkakoei dagokienez.

Analisi honen prozesua hainbat lan bileraren bitartez egin zen. Lehen fase batean 80 pertsonak hartu zuten parte guztira; pertsona horiek Zuzendaritza Taldekoak, Kontseilu Errektorekoak eta langile zuzenak eta zeharkakoak ziren, eta Irizarreko jarduerari eragiten dioten kanpoko eztabaidagaiak aztertu zituzten, hala nola egoera makroekonomikoa eta sektorearen, merkatuaren eta lehiakideen analisia.

Lehen analisi horretako ideietatik harantzago, hainbat gogoeta egin ziren Irizarren barne egoeraz eta AMIAz (Ahuleziak, Mehatxuak, Indarguneak eta Aukerak) eta, azkenean, gogoeta horietatik ondorio orokorrak atera eta Irizarreko pertsona guztiei helarazi zitzaizkien, prozesuan parte hartzeko aukera ere eman zitzaielarik; izan ere, iradokizunak eta proposamenak egiteko aukera eman zitzairen, eta jasotako guztia Irizarren lehiarako posizioa hobetzeko ekintzetan gorpuztu zen.





ANIZTASUNA eta BERDINTASUNA

Aukera berdintasuna babestu nahi dugu eta diskriminaziorik ez egotea eta aniztasuna errespetatzea bultzatu nahi dugu; hori da, hain zuzen, pertsona berriak hartzeko dugun politikan jasotzen dena. Gure estatutuek hau diote: "Baztertzeko arrazoiak ez dira izango ideia politikoak, sindikalak edo erlijiosoak (ez eta hautagaiaren arraza, hizkuntza, sexua edo egoera zibila), ez bada printzipio eta antolaketa kooperatiboaren eta Irizar S. Coop.en helburu, konpromiso, balio eta printzipioen nabarmen kontrakoak direla". Genero berdintasunari lotuta azpimarratzekoa da Irizarren sartzen diren pertsona berri guztiek baldintza berdinak dituztela, baita lansariak ere, betiere erantzukizun berdineko lanpostuak betetzen badituzte.

Gure instalazio guztiak ezgaituen irisgarritasuna moldatzeko moduan hornituta daude. Eta zentzu horretan, gure filosofia da minusbalioetasunen bat duten pertsonak hartzen edo kontratatzen dituzten enpresa edo kolaboratzaileekin lan egitea, Irizarren ekoizpen prozesuan sartuta.

PRESTAKUNTZA

Ikusita gure jarduerak gero eta konplexuagoak direla, bai komertzialekoak bai diseinuari eta garapenari dagozkionak eta baita produktuak eta zerbitzuak egiteari dagozkionak, diziplina askotan prestatzeko eta balioaniztasuna lortzeko formazio plan zorrotzak egiten ditugu.

Ezagutza handitze hau beharrezkoa da gure produktu eta zerbitzuen kalitatea eta gure efizientzia areagotzeko.

Prestakuntza Prestakuntzan emandako orduak / Pertsona kopurua		
	Orduak	Pertsonak
2013	5779	210
2014	6551	264
2015	4701	166
2016	4546	222

LAN KONTZILIAZIOA

Lanaldia murriztea ahalbidetzen dugu edo, bestela, bitzta profesionala eta bitzta pertsonala uztartzeko ordutegia malgutzeko aukera ematen dugu. Kontseilu Errektoreak lanaldi murrizketen eskaeren %100 (3, 4, 5 edo 6 ordu) onartzen ditu.

SEGURTASUNA eta OSASUNA

Lan arriskuen prebentziorako sistema bat daukagu, eta sistema horretan segurtasuna lehenesten da beste arlo batzuen aurretik eta beharrezko baliabideak erabiltzen dira. Istripu eta gertaeren %100 aztertzen dira. Esparru horretan, azken 3 urtean 1.000.000€ baino gehiagoko inbertsioak egin dira eta segurtasuna areagotu da, bereziki ondorio larriak ekar ditzaketen arriskuak murriztuz, adierazleek erakusten duten moduan.

Horren guztiaren ondorioz, 2016an gutxitzen joan dira bai maiztasun indizea (istripu kopurua lan egindako ordu kopuruarekiko) bai intzidentzien indizea (istripu kopurua langile kopuruarekiko) eta bajadun istripuena. Gure asmoa da indize horiek jaisten jarraitzea etorkizunean, Irizarreko langile guztien inplikazio nabarmenari esker.

Erregularitasunez egin ohi diren segurtasun eta osasuneko jarduerak guztiez gain, 2015eko memorian zehaztasunez landu baitziren, 2016an hartutako neurrien artean hauek dira azpimarratzekoak:

- Akaberen gunean egindako inbertsioak, lurrungailuak instalatzeko eta horrekin erosotasun termikoa lortzeko.
- Lixatzeko makina automatikoaren diseinua eta fabrikazioa, kaxak lixatzeko pintura gunean.
- Armadura guneko jasogailuak erregulatzeko sistema egokitzea, segurtasuna hobetzeko asmoarekin.

Bajadun lan istripuak		
Urtea	Langileak	Bajarekin
2013	702 langile	79 lan bajarekin
2014	754 langile	70 lan bajarekin
2015	786 langile	70 lan bajarekin
2016	778 langile	67 lan bajarekin

Maiztasun indizea	
Urtea	Indizea
2013	69,4
2014	61,3
2015	54,99
2016	51,07

Inzidentzai indizea	
Urtea	Indizea
2013	112,4
2014	96,88
2015	90,82
2016	75,47

Gure konpromisoa KANPOKO LAGUNTZAILEEKIN

“Gure hornitzaileek eta gainerako kolaboratzaileek gure marka eta kokapen lehiakorra hobetzen lagunduko diguten produktuak eta zerbitzuak eskaintzeko gaitasuna daukate”

Hornitzaile nagusiei dagokionez “autokar bakoitzeko kudeaketa” deitu daitekeena ezartzen da; izan ere, hornitzaile horiek erabat txertatzen dira eta euren produkzioari dagokion Irizarko kudeaketa sistema eta planifikazioa kontsulta ditzakete eta orobat egiteke dauden eskaerak, jasotako merkantzia, bezeroaren etengabeko berrikuspenak espezifikazioen inguruan eta autokar bakoitzera lotutako bere artikuluak.

Ezgaituak laneratzea

Zeharka, gure hornitzaile Katearen bitartez, Irizar S.Coop.erako 57 ezgaituk egin dute lan 2016an. Kopuru hori 2016an genuen plantillaren %7,3aren parekoa da.

Irizar Groupen enpresa partaidetueta gure bazkideekin ditugun aliantza estrategikoez gain, hitzarmenak ditugu banatzaileekin banaketa eta zerbitzua bezeroarengandik ahalik eta gertuen emateko merkatuetan.

Taldean ezagutza eta teknologia eskuratzeari dagokionez, gure ezagutza osatuko duten zentro teknologikoetan elkarlanean jarraituko dugu gure proiektuetan, esaterako hauekin: CEIT, CIDETEC, TECNALIA; etab.

Ezgaituen zeharkako kontratazioa

Urtea

2013	3,8%
2014	4%
2015	8,6%
2016	7,3%



Konpromisoa INGURUMENAREKIN

Ingurumenarekin dugun konpromisoa gure jardueran nabaritzen da, bai eta gure autobus eta autokar ekologikoetan ere. Irizar i2e hiriko autobus %100 elektrikoa da ingurumenaren aldetik dugun ikur berria. Baina 2016an azpimarratu behar dugu, baita ere, Irizar i3 eta i4 hibridoek merkaturatzea.

Europako Ingurumen Sariari Espainiako ataleko Epaimahaiak Irizarri eman dio 2016an enpresentzako Ingurumen Sari Nazionala produktu-zerbitzu kategorian. Koordinazioaz Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioa arduratu da Biodiversidad Fundazioaren bidez.

Gure JARDUERA

1998az geroztik gaude ingurumenarekin konprometituta; izan ere, urte hartan Irizar lehena izan zen ISO14001 egiaztagiria lortzen autokarren fabrikatzaileen artean.

Irizarren ingurumen politikako printzipio nagusiak honakoak dira: CO2 eta sustantzia kutsatzaileen isurketak progresiboki murriztea; produktuen diseinuan ingurumen irizpideak sartzea; eta bertako pertsonen eta kolaboratzaileengan ingurumena errespetatzeko jarrera sustatzea.

Taldearen baitan bultzatutako elektromugikortasun negozioa ingurumena zaindu eta herritarren ongizatea bilatzeko adierazle esanguratsua da.

Aurrera goaz efizientzia energetikoan, hondakinen tratamenduaren optimizazioan eta gure jarduerak eta gure produktuek sortutako ingurumen eragina murrizteko bidean.

Ingurumeneko adierazleak

Baliabide Naturalen kontsumoak:

Baliabideen kontsumoa			
Urtea	Ura (m ³ /ekoitzitako autokarra)	Energia elektrikoa (kWh/ekoitzitako autokarra)	Gas Naturala (kWh/ekoitzitako autokarra)
2013	9,29	6292,81	9090,48
2014	9,72	5655,24	7914,71
2015	10,67	5240,75	8201,92
2016	8,98	4832,85	8184,06

Ura: Jaitsiera handia egon da, ekipoak berritzeko prozesuari zein pertsonen aldetik uraren erabilera arduratsuari lotuta egindako hainbat ekintzari esker.

Energia elektrikoa / Gas Naturala: Ikusienez, 2016an murrizketa gertatu da kontsumoan, aurreko urtearekin alderatuta. Eraitza hori, ustez, gas eta energia kontsumoak egonkortzen lortu delako izan da, ekoizpenak gora egin duen arren, 2016an energi efizientziari lotuta hartutako neurriek esker, horietako batzuk izanik energi efizientziaren auditoriak ekarritakoak.

Bilakaera oso positibotzat jotzen da, hartutako neurrien eraginkortasuna berresten baita.

Produktu kimikoen kontsumoak:


Baliabideen kontsumoa		
Urtea	Pintura kontsumoa/m ² trataturakoa (kg/m ²)	Hondakin arriskutsuen kontsumoa/m ² trataturakoa (kg/m ²)
2013	0,404	0,231
2014	0,347	0,196
2015	0,493	0,163
2016	0,450	0,163

Pintura: 2016an %8,68 pintura gutxiago kontsumitu da 2015aren aldean. Modu koherentean eta disolbatzaileen kontsumoaren antzera, pinturen kontsumoan jaitsiera ikusten da, batez ere pinturen kudeaketa planaren ezarpenagatik, adibidez disolbatzaile gutxiago duten pinturen erabilerearen ezarpenagatik.

Disolbatzailea: Ekitaldi honetan aurreko urteko igorpen mailen antzekoak egon dira. 2007an disolbatzaileen Kudeaketa Plana lantzen hasi zenetik IRIZARek m² azalerako eduki dituen COVen igorpenik txikiak izan dira. Igorpen horiek dira, hain zuzen, ekitaldi horretan erregistratutakoak baino %43,42 txikiagoak.

Hondakin arriskutsuak

Hondakin arriskutsuak	
Urteak	Hondakin arriskutsuak ekoizitako autokar bakoitzeko (kgr/ekoizitako autokarra)
2013	241,40
2014	234,68
2015	286,37
2016	285,30



2016an autokar bakoitzeko sortzen den hondakin arriskutsuen ratioari eutsi zaio; zehazki, 2015etik 2016ra bitartean, ratio hori 286,37 Kgr-tik 285,30 Kgr-ra igaro da ekoizitako autokar bakoitzeko (%0,4ko jaitsiera); halere, teknikoki ratioa mantendu dela jotzen da.

Hondakin ez - arriskutsuak

Hondakin ez - arriskutsuak	
Urtea	Guztira (Kg/ ekoizitako autokarra)
2013	1191,07
2014	1184,57
2015	1236,19
2016	1211,22

2016an, jaitsi egin da sortutako hondakin ez-arriskutsuen kopurua autokar bakoitzeko. Zehazki 1.236,2 Kgr-tik 1.211,22 Kgr-ra jaitsi da 2015etik 2016ra bitartean. Horrek esan nahi du %2,02ko jaitsiera egon dela hondakin mota horretan.

Jaitsiera batez ere 2016ko ingurumenaren kudeaketa planari lotzen zaio, hondakin arriskutsuak eta bestelakoak bereizteko hobekuntzarekin jarraitu baita. Plan horren bidez, planta sortu eta jasotako hondakin arriskutsuak eta ez-arriskutsuak -tartean gehien sortzen den hondakina, II Motako Hondakin Bizigabea - %0,3 gutxiago izan dira 2015ekoen aldean.

Irizarren autokar HIBRIDOA

Hiri handietan eta horien inguruetan garraioak egun dituen eta etorkizunean izango dituen beharizanei erantzun jasangarria eta ekofizientea emateko garatu du Irizarrek produktu gama hau.

Ahalegin berritzaile horren emaitza izan da teknologia hibridoa duen **II klaseko lehen aldiriko ibilgailua merkaturatzea, hiri barruko zein hiriarteko zerbitzuetarako, low entry eta maletategidun goiko solairuko bertsioetan.**

II klaseko autokar hibridoa merkaturatu duen Europako lehen enpresa da Irizar. Teknologia hibrido paraleloa da Irizarrek garatu duen hibridazio teknologia Diesel propulsioko edo HVO (biodiesela) motorra eta motor elektrikoa konbinatzen ditu eta, beharren arabera, batera edo banaka trakzionatzen dute, eta horrela efizientzia eta errendimendurik onena lortzen da.

Errekuntzako ohiko autobus eta autokarren aldean, 157 gr inguru CO2 gutxiago igortzen du kilometroko, eta gutxi gorabehera 2,5 gr CO2 gutxiago igortzen du bere bizitza baliagarri osoan zehar (100.000 km urtean gutxi gorabehera, 15 urtean).

Era berean, landare jatorria duen azken belaunaldiko biodiesela erabiltzen uzten du (HVO), sulfuroen igorpena kentzen duena. Ingurumenaren gaineko hobekuntzez gain, gure autokar hibridoek %20 murrizten dute erregaiaren kontsumoa, eta horrek bezeroei gasoliotan urtean 6.000 l aurrezteko ahalbidetzen die. Datu horrek, era berean, CO2 igorpenei ere eragiten die, urteko 170.000 gr inguru murrizten baitira.





Irizar Taldearen hiri autobus %100 ELEKTRIKOA

Irizar i2e-a autobus erabat seguru, fidagarri eta errentagarria da, eta aukera ugari eskaintzen ditu operadoreen eskakizunetara moldatzeko, zerbitzu integrala eta mantentze lanen zerbitzua bermatuta ibilgailuaren bizitza baliagarri osoan zehar. Teknologia propioarekin garatu eta fabrikatua eta bizitza zikloaren ikuspegiarekin, Irizar i2e Taldeak berrikuntza-aren alde egindako apustu estrategikoaren emaitza da. Ibilgailu %100 elektrikoa efizientzia energetikorik handiena lortzeko diseinatuta dago, gutxiago kontsumitzeko, eta ibilgailuaren autonomia ahalik eta handiena lortzeko, bere bizitza zikloaren amaieraren kudeaketa ezin hobearekin batera.

Irizarrek karga irekiko interfaze bat hitzartu du 2016an, Europako beste fabrikatzaile batzuekin batera, hala nola, Solaris, VDL eta Volvoren. Horren asmoa izan da autobus elektrikoaren interoperabilitatea bermatzea, ABB, Heliox eta Siemens-ek jarritako karga azpiegitura baten bitartez. Horrela, estandar europar komun bat ezarri da autobus elektrikoaren sistemarako. Irizarren autobus elektrikoaren familia handitu egin da 2016an, 18 metroko Irizar i2e artikulatu batekin. Taldearen lehen BRTa (Bus Rapid Transit) 2016an serien fabrikatzen hasi aurretik ekin zion iraupen probak egiteari. 2017an hasiko da saltzen.



Zuzeneko %0 igorpen hiri inguru-
nean. %86 karbono aztarna gutxia-
go diesel autobus konbentzionalen
aldean.



200-220 km-ko autonomia, 5-7 or-
duko karga bakarrarekin (15-17km/h).



Materialen eta ekipoen berreskura-
pen eta birziklapen tasa %90 baino
handiagoa.
Igorpen eta kutsatzaileak.



Igorpen eta kutsatzaileak

Erabilera faseko igorpen zuzenak kentzea (CO2, NOx), eta zaratarik eta bibrazioirik ez bidaiarientzat.



Energia

Trakzio elektrikoa duen sistema baten efi-
zientzia %70 ingurukoa da, eta ohiko diesel
sistema batena, berriz, %35 gehienez.



Lehengaiak eta hondakinak

Torlojutze modularreko sistema berria eta
bateria %100 birziklagarriak. Mantentze
lan gutxiago eta bizitza baliagarri luzeagoa.



Zarata

Errekuntza motorraren zarata kentzea, eta
horri esker kaletik doazen pertsonek ia ez
dute batere zaratarik entzuten ibilgailua
abiadura txikian doanean, edo geldidagoe-
nean edo abiarazten denean.

Beste onura batzuk:

- Lehen autobus elektrikoa, segurtasun aktibo eta pasiboari dagokienez eskakizun zorrotzagoak betetzen dituena, izan ere, R.66 irauli ez egiteko segurtasun araudia betetzen duen autobus elektriko bakarra eta lehena da merkatuan.
- R107 homologazioa gainditzen du, mugikortasun urrituko pertsonek iragarritasunari dagokienez (minusbaliatuentzako arrapala eskuz eta elektrikoa eduki ditzake). Malgutasun handia dauka eserlekuen antolaketa eta gurgildun aukietarako lekuen kokalekua erabakitzeko.

Gure autobus elektrikoaren gaineko informazio gehiago nahi baduzu, begiratu 2015eko iraunkortasun memoria. Bertan lhobek (Eusko Jaurlaritzaren ingurumen kudeaketako sozietate publikoa) Irizarren autobus elektrikoaren gainean garatutako ingurumeneko bikaintasun kasuaren laburpena sartu zen.

Gure konpromisoa GIZARTEAREKIN

Honekin bat eta pertsonenganako konpromisoaren atalean ikusi bezala, 2016an Irizar S. Coop-eko lan postuak mantendu ditugu eta Irizar Group-ekoek gora egin dute.

Urtean 1,5 milioi euro baino gehiago ari gara ematen gure ingurune sozialari laguntzeko. Gure pertsonen ahalegin ekonomikoa eta dedikazioa handia bideratzen dugu inguruko egoera sozioekonomikoa eta bizi garen gizartea hobetzera.

Inguruko ikastetxe eta unibertsitateekin lankidetzan ari gara. Gure sektorearekin lotura duten jardueretan laguntzen dugu. Kulturarekin, kirolarekin eta unibertsitateetako formazioarekin lotutako ekimenak ere laguntzen ditugu. Eta nazioarteko kooperazioaren aldeko apustu argia egiten dugu, ez bakarrik garapen unibertsala bultzatzeko, baita barneko hazkunderako ate gisa ere.

Proiektu bakoitza aukeratzeko eta bakoitzaren iraupena erabakitzeko irizpi-deak Irizarreko Kontseilu Sozialak ezartzen ditu, eta pertsona guztiei jakinarazten zaie horretarako ezarrita dauden komunikazio kanalen bitartez. Ondoren 2016an bultzatu genituen jarduera ildo nagusiak jasotzen dira:

“Gizartearekin dugun harremana errespetuzkoa, **irekia** eta **parte-hartzailea** da, eta gure hurbileko ingurunean aberastasuna eta enplegua sortzen ditugu eta **kulturan, hezkuntzan**, eta **kirolean** parte hartzen dugu. Gizarte ekintzan ere parte hartzen dugu, bai gure hurbileko ingurunean bai munduko gune behartsuenetan”.

Gure sektorearekin zerikusia duten jarduerak

Autokarrek izan ditzaketen istripuetan esku hartzerakoan zerbitzu publikoetako profesionalak eta larrialdietakoek autokarren inguruan duten ezagutza handitzeko ekintzak egiten ditugu.

Sektoreko elkarleen babesa –Asetra, Aetram, Fecalbus, Fenebus eta Madrileko Partzuergoa –. Urtero egiten dugu hau autobuseko eta autokarreko garraioa bultzatzeko eta posizionatzeko, etorkizunean beharrezkoa izango den garraio gisa.

Erretiroa hartu dutenen urteroko omenaldia. Aurten ere, Irizarrek erretiratuei aspalditik eskaintzen dien omenaldiaren harira, erretiratuak urteko hitzordura bertaratu ziren. Egun osoa lagunekin eta lankideekin igarotzen dute, eta ez da inoiz falta garai bateko oroitzapen eta pasadizorik. Aldi berean, pertsonekin harremanetan jarraitzen dute eta urteetan beren bizitzaren zatia izan diren jardueren berri izaten dute.



Kultur jarduerak



Gure hurbileko inguruneko hezkuntza, kultura eta tradizioen arloko jarduerak babesten ditugu.

Urteroko euskal zinemari laguntzeko ematen den Irizar sariaz gain, Donostiako Zinemaldiaren barruan bi pelikula filmatzeko babesak eman ditu 2016an: "Together" eta "Dantza".

Bigarren urtez jarraian, Irizarrek Albaola Itsas Kultur Faktoriarekin aritu da elkarlanean. Albaolaren jardura nagusia da itsasontzi historikoen eraikuntza, artisautzako itsas teknologia berreskuratzeko eta balioesteko gune berritzaile batean. Faktoria jendearentzat irekita dago eta ezaguna da bere dinamismoagatik, bere jardueren dibertsitateagatik eta nazioartean duen proiektioagatik.

Irizar Euskararen alde aktiboki inplikatur dago, euskararen erabilera areagotzeko eta normalizatzeko, bai enpresaren barruan Irizarren Euskara Planaren bitartez bai bere inguru sozialean hainbat erakunde eta jardura babestuz. Horien artean hauek nabarmentzen dira: Kontseilua, Kilometroak, Nafarroa Oinez, Korrika, Ibilaldia, Araba euskaraz, Bertsolaritzaren lagun elkarte, etab.

Musikaren hainbat modalitatearen zabalkunde orokorrean laguntzeko asmoarekin, Irizar hauei laguntzen die: Goierri kantuz, Antiguako Elkartearen lehiaketa, Ormaiztegi abesbatza, Ataungo Organo Barrokoaren jaialdia, etab.

Heziketa jarduerak



Irizarrek hainbat modalitatetan laguntzen du heziketaren eremuan:

Aktiboki inplikatu da esperientziak gizartearekin partekatzeko eta beste erakunde batzuetan aurrerapenak ekar ditzaketen interesak sortzeko helburuarekin egiten diren jardueretan. Ate irekien jardunaldiak antolatzen ditu, enpresa, erakunde, organismo publiko, unibertsitate, ikastetxe eta irabazi asmorik gabeko zein irabazi asmoa duten beste edozein eratako erakundeetako pertsonentzat irekita.

Beste urte batez "Bizitzaren bidaia" zikloa babestu du, Euskal Herriko Unibertsitateko udako ikastaroen barruan. Prestakuntza eta ikasketa ziklo irekia bizitzan zehar, bai eta bizi garen munduaren gainean gogoeta egiteko ere, etengabe aldatzen ari baita, ahal den neurrian etorkizun desiragarria eta hobe eratzten laguntzeko.

Irizarrek Euskal Herriko ikastetxeei laguntzen die.

Udalekin eta beste enpresa batzuekin batera Goierri Fundazioko kidea da, zeinak Goierriko eskualdeko pertsonen prestakuntza eta garapen tekniko, ekonomiko eta soziala lortzea baitu helburu, Ormaiztegi eskualde horretan kokatzen baita.

Goieki Enpresen Inkubategian parte hartzen du, non helburu nagusia baita Goierriko eskualdean enpresa ekimen berriak agertzen laguntzea eta bultzatzea. Horretarako ekintzaile ugari laguntzen saiatzen da, beraien enpresa proiektua aurrera eramaten eta proiektu horren garapen fase guztietan aholkuak eta gomendioak emanez.



Kirol jarduerak



Kirola bide egokia da dedikazioa, motibazioa, esfortzua eta talde lana bezalako balioak transmititzeko. Horregatik, Irizarrek kirol alorreko hainbat erakunde babeste ditu urtean:

Kirolgi Fundazioa. Gipuzkoako kirola bultzatzea eta garatzea helburu nagusi dituen irabazi asmorik gabeko erakundea da, eta beste ezertaz baino lehen errendimenduko kirolaz arduratzen da, bereziki babesle publikoak eta pribatuak erakarrita.

Gipuzkoako kirola goreneko mailan: Futbolean (Real Sociedad), eskubaloian (Lagun Aro GBC), eta errugbian (Ordizia Rugby taldea)



Eskualdeko taldeak, probak eta txapelketa, arlo hauetan: atletismoa, euskal herri kirolak, mendia, txirrindularitza, bai eta Ormaiztegi inguru hurbilean egingako kirol jarduerak eta kirol txapelketak.

Gainera, 2016an erakunde hauekin aritu ginen elkarlanean:

Xistera – Euskal Herriko zesta puntako klubak. Bere helburua da zesta puntari bultzada bat ematea, hau da, kirol hori sustatzea, osasuntsu ez baitago eta unerik txarrenak bizi ari baita.

Kirol Egokituaren Gipuzkoako Federazioa. "Jarduera fisiko egokitu eta inklusi-boaren proiektu integrala Urola Garaian eta Goierri dibertsitate funtzionala duten haur eta gazteentzat". Proiektua 2015ean hasi zen eta Urola Garaiko pertsonentzat izan zen orduan, baina 2016an Goierriko eskualdera zabandu da proiektua. Honen alde egiten da lan

- Eskola kirolean eta gazte kirolean parte hartu nahi duten haur eta gazteen partaidetza bultzatzea eta dibertsitate funtzionala duten haur eta gazteen gizarteratzea bultzatzea.
- Esperientzia positiboak bultzatzea, osasunari, prestakuntzari eta motibazioari lotutako alderdietan.
- Osasuna eta harreman sozialetan laguntzen duten jolasak bultzatzea, helburu komunak lantzeko tresna diren heinean.
- Fomentar la salud y el juego que contribuya a potenciar las relaciones sociales como herramienta para trabajar los objetivos comunes.
- Ezagutzeko aukerarik ez duten beste jarduera, aretoko kirol edo naturako kirol batzuen berri ematea (ekinoterapia, etab.)
- Gaitasun funtzionalak, motoreak, kognitiboak, sozialak eta emozionalak hobetzea.



Izaera sozialeko jarduerak

Gizartearekin dugun estrategiarekin koherente izanik, irabazi asmorik gabe diharduten izaera sozial eta asistentzialeko hainbat erakunderi laguntzen diegu:

- Nazioarteko lankidetzak 20 GKEekin garatutako proiektuen bitartez. Kolektibo ahulenen heziketan, mantentze lanetan, azpiegituretan eta arreta ematen laguntzen dugu. GKE-ek planteatutako premien arabera, kasu batzuetan laguntzen ditugun proiektu batzuk urte askokoak dira.
- Maila lokalean eta probintzian diharduten irabazi asmorik gabeko elkarteekin ari gara elkarlanean, horietako batzuk hauek izanik:
 - Proiektu zehatzetan laguntzen diegun elkarte handiak, besteak beste hauek: Caritas, Elikagaien Bankua eta Gurutze Gorria.
 - Elkarte probintzialak, batez ere pazienteen eta senideen elkarteak. Gaixotasun arraroen elkarteak, esaterako: Tximeleta Larruzala, eta Stop San Filipo.
 - Adineko pertsonak artatzeko elkarteak.

Horretaz aparte, aurreko memorietan aipatu ditugun urte askoko proiektu batzuei laguntzen jarraitzen dugu. Hauek dira 2016an GKEekin elkarlanean lagundu ditugun proiekturik esanguratsuenetako batzuk:

Vicente Ferrer Fundazioa

"Nekazarien eta abeltzainen 21 familiaren garapen sozioekonomikoaren sustapena Anantapur distrituan, Andhra Pradesh estatuan (India)" izeneko proiektua. Nekazari komunitaterik ahulenen pobrezia mailak murrizteko helburuarekin. Ur gehiago erabilgarri edukitzeko helburua lortu ondoren, ureztaketarako ura eraginkortasunez erabiltzeko sistemen instalazioarekin egoki osatu dira orain arte egindako ekintzak. Gainera, haziak banatu dira ortuarien dibertsifikazioa sartzeko beraien landa lurretan. Jarraipena eta iraunkorra izatea ziurtatzeko, proiektuak prestakuntza eta trebakuntza ere aurrekusi zituen, bai gizonentzat bai emakumeentzat, ureztaketa sistemen erabilerarako eta zaintzarako eta ingurumenaren eta ur baliabideen zainketak duen garrantziaren gainean, oso urriak baitira. Familia horien emakumeek ere esnetarako behi bana jaso dute jabeagoan, beraien seme-alaben elikadurarako eta esnea salduz diru sarrera gehiago lortzeko. Familiak animalia hazteko eta egunero esnea saltzeko beharrezkoak diren ezagutzei buruzko saiok jaso dituzte.



Mugarik gabeko medikuak



Proiektua: "Al Shalama Ospitalea Sirian", Turkiako mugaren eta Aleporen artean. Ospitale honen kudeaketa zuzenari esker Mugarik Gabeko Medikuek kalitateko eta doako arreta medikua eskaini diezaiekete gerraren ondorioz hiritik alde egin eta gune horretan harrapatuta geratu direnei. Ospitalean pazienteak artatzen dira, kanpoko kontsultetan, amatasun eta kirurgian, eta horrez gain adin txikikoei txertoak jartzen zaizkie.



Proiektua: "Larrialdi Nutrizionala Nigeriako ipar-ekialdean". Nigeriako iparraldean bizi diren ehunka nigeriarrak egoera dramatikoan daude. Asko euren etxea uztera behartuta ikusi dira Boko Haramen milizien eta armada nazionalaren arteko gatazkaren ondorioz, edo harrapatuta ikusi dira, ihes egiteko aukerarik gabe. Elikagaien falta nabarmena eta oinarritzko zerbitzuetara iristeko aukerarik ez edukitzea modu drastikoan kaltetzen ari dira beraien osasuna, eta askok ezin dute bizirik iraun. Irizarren laguntza desnutrizio larria duten haurrak tratatzeko erabiltzen da, programa ambulatorio baten bitartez. Tratamendua, funtsean, elikagai terapeutikoak dira, 4 edo 5 astetan ematen zaizkienak.

Unicef



Proiektua: "Larrialdia Haitin". 2016an Matthew urakanak hondamendi arrastoa utzi zuen Haitin. Zoritxarrez urakanaren ondorioak pairatzen ari diren haur guztien eskubideak bermatu daitezten lan egiten du Unicefek. Hauek dira egin diren ekintzetako batzuk: Ur edangarria eskura jartzea, eskolak birgaitzea eta mahai eta arbelez hornitzea, burdina eta azido folikoko osagarriak ematea haurdun dauden edo edoskitzaroan dauden emakumeei, mikronutrienteak ematea neska-mutilei, Haurren Gune Adiskideak ezartzea haurrei laguntza psikosoziala emateko eta haiekin jarduera ludikoak egiteko.



Irizar S. Coop.
Zumarraga bidea, 8
20216 Ormaiztegi (Gipuzkoa) | Spain
T +34 943 80 91 00 | F +34 943 88 91 01
irizar@irizar.com | www.irizar.com